



Andoni Fuentes
ALDA ZALDITEGIA
ARABA

2024 URTEKO TXOSTENA

Hiru hamarkada
talentua bultzatzen,
etorkizuna sortzen



gaztenpresa
fundazioa

ERAKUNDE SORTZAILEA



HAUEN FINANTZIAZIOAREKIN:



ALIAINTZAK



GURE PARTE-HARTZEA DUTEN SAREAK



Aurkibidea

- 1 **PRESIDENTEAREN GUTUNA**
- 2 **GAZTENPRESA**
- 3 **GURE INPAKTUA**
- 4 **SORRERA-PROGRAMA**
 - ENPRESEN SORRERA
 - FINANTZIAZIOA
 - GAZTENPRESA DIGITALA
- 5 **ENPRESA-FINKAPEN PROGRAMAK**
 - AHOLKULARITZA
 - MENTORING
 - GAZTENPRESA GELA
- 6 **EKINTZAIETZA KULTURAREN SUSTAPENA**
 - PODCAST
 - ERREFERENTEAK
- 7 **GOBERNANTZA ETA URTEKO KONTUAK**
- 8 **EKINTZAILEAK**



Gutuna

Gaur egun **Gaztenpresa den proiektuak 90eko hamarkadan urte hasi zuen bere ibilbidea**, negozioak abiatzera zuzendutako ideien lehiaketa gisa. Garai zailak ziren, zeren gure lurraldeko birmoldaketa industrialak lanpostu ugari suntsitu baitzituen, eta sufrimendu eta prekarietate handia ekarri zituen berekin. Egoera horri erantzuteko, bulkada espontaneo bezala agertu zen, helburu altruista batez: beharra zuten pertsonen euren bide propioa autoenpleguaren bidez aurkitzen laguntzea. Horrela hasi zen Gaztenpresa. **Gero, poliki-poliki haziz joan zen, 2002an Fundazio bezala formalki eratu arte.**

Gaur egun, zorionez, inguruabarrak bestelakoak dira. Gure inguruneke enpleguaren datuak nabarmentzekoak dira, orokorrean. Nolanahi ere, pertsona askok jarraitzen dute lan-irtenbide bat autoenpleguaren bidez bilatzen, dela beharragatik, dela bokazioagatik edo hobetzeko nahi osasungarriagatik, eta Gaztenpresaren mezuak indarrean jarraitzen du, bere dimentsio osoan: **“ezein negozio-idea ez dadila bidean geratu sostengu edo finantziazio faltagatik”.**

Gure ibilbidea berme ahaltso bat da. Datuak adierazgarriak dira berez. **Hala, 2024. urtean -iaz- 348 enpresa berri eratu ziren, eta horri esker 696 lanpostu sortu ziren.** Ikuspegi historikoarekin begiratuta, orain dela 30 urte baino gehiago hasi

zenez geroztik, **Gaztenpresaren laguntzari esker 7.246 negozio abiatu dira eta horren bidez 13.371 lanpostu sortu dira.**

Gaztenpresaren lema gogoratzera koan lehen aipatu dudan bezala, proiektu oro ideia batetik abiatzen da, zeren ideia on bat enpresa-abentura abiatzea ahalbidetzen duen hazia baita. Hala eta guztiz ere, uste dugu hori ez dela garrantzia duen gauza bakarra, eta gure begirada zabalagoa izan behar dela. Hala, **Gaztenpresan ideia horietako bakoitzaren atzean dagoen pertsonari ere begiratzen diogu**, eta berdin zaintzen dugu, zeren giza kapitalak ekartzen duen balioa ezinbesteko elementua baita proiektuak helmugara iritsi daitezen eta denborarekin finkatu egin daitezen.

Hain zuzen ere, horregatik Gaztepresan ahalegin handiak egiten ditugu pertsonen ondoan egoteko haien ekintzailatza-bidean. Eta hain kritikoa den puntu horretan, bereziki nabarmendu nahi ditut proiektuen jarraipen eta finkapenerako programak. Adibide gisa, **azpimarratu nahi dut iaz 1.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu dutela Gaztenpresak antolatu dituen tailerretan**, horiek Fundazioaren jardueren funtsezko elementu bat baitira. Eta -zerbaitengatik izango da- horren emaitza da **gure fundazioaren babespean eratutako enpresen biziraupen-tasa %77tik** gorakoa dela 5 urte igaro eta

gero; batezbesteko orokorra, berriz, ez da %50era iristen, EUSTATen datuen arabera.

Horretarako, gure Mentoring Programa ere da lagungarria. Boluntariotzaren esparruan, akonpainamendu pertsonalizatu bat ezartzen da negozioen finkapenean laguntzeko. Ekintzailatzaren eta enpresa-kudeaketaren alorrean esperientzia duen pertsona batek laguntza ematen dio ekintzaileari, kontrastea eskainiz eta erabakiak indartuz, horren bidez beraren kudeaketa-gaitasunak hobetzeko xedez. **2024an, aurrera egin dugu programa horren barruan 14 harreman berri ezarritz.**

Laburbilduz, Gaztenpresak egindako ibilbideaz egiten dugun balantzea oso gogo-betekoa da, zeren eta, kalitatezko enpleguaren aldetik lortutako datu adierazgarriez gain, **egiaztatu baitugu sortzen dugun inpaktua oso positiboa dela.** Hala eta guztiz ere, lortutakoak ez gaitu guztiz pozik uzten. Izan ere, gure anbizioak etorkizunera begiratzen du, eta kezkatuta gaude gure Fundazioak epe ertain eta luzera beharko duen bultzadagatik.

Hausnarketa-prozesu parte-hartzaile luze baten ostean, **Gaztenpresaren jarduera gure sortze-helburuaren arabera proiektatuz, 'ONDAREA' abiatu dugu.** Programa handinahi bat, helburutzat duena negozioen eskualdatzea eta jarraipena lortzea pertsona titularra edo titularrak laster erretiratuko direnean eta definitutako belaunaldi-erleburik ez dutenean.

Hala, ONDAREAREN helburua hau da: programan parte hartzeko interesa duten negozioak identifikatu ondoren, proiektuen lekukoa hartu nahi duten pertsona egokiak aurkitzea. Horren bidez, negozio bideragarrien itxiera saihestu

nahi dugu, eta, aldi berean, nahi duten pertsonen aukera ona eskaini jadanik abian dauden eta funtzionamendu historiko ona duten negozioak eskuratzeko, bi alderdiei lagunduz prozesua modu ordenatu eta planifikatuan gauzatzen. Funtzionamenduan dauden enpresa eta negozioen ehuna kapital soziala, ekonomikoa, ezagutzakoa eta toki-jarduerakoa da, eta zaindu egin behar dugu eta ekintzaile berrientzat balioetsi. Hori ere gizarte-erantzukizuna da.

Aldi berean, **programa berri hori ERALDATU programarekin osatzen da; bere helburua da forma juridiko pertsonalak edo merkantilagoak dituzten enpresak eraldatzea, gizarte-ekonomiako formuletan pasatzeko; era horretan, erantzukizuna mugatzeaz eta egitura finantzarioa hobetzeaz gain, eredu kooperatiboak hedatu ere egingo ditugu enpresa horietan.**

Lerro hauek ilusiorako eta konpromisorako mezu batez bukatuko ditut. **Atzera begiratz, harro sentitzen naiz egindako ibilbideagatik eta euren bizitzak hobetzeko xedez euren konfiantza Gaztenpresan jarri duten pertsona guztiei emandako laguntzagatik.** Aurrera begiratz, berriz, gogo bizia dut aukeraz betetako etorkizun bat eraikitzen jarraitzeko, eta hor ekintzailatzak jarraitu dezala garapen pertsonal eta kolektiborako garapen-bidea izaten. Eta honako konpromiso hau hartzen dut: hasieratik gidatu gaituzten balioetan inspiratuta, lanean jarraitzea ideia on guzti-guztiek euren aukera izan dezaten, bat ere ez baztertu gabe.

Ibon Urgoiti
Presidente



Gaztenpresa

GURE IBILBIDEA

90eko hamarkadaren hasieran, Nerbioi itsasadarreko ezker aldeak oso garai konplikatuak bizi zuten; hala, industria-birmoldaketaren ondorioz, gazte-langabeziaren tasa % 50etik gorakoa zen. Egoera tamalgarri horren aurrean, ingurune horretako LABORAL Kutxaren sukurtsaletako zuzendari batzuek erabaki zuten ezagutza eta baliabideak konpartitzea, aliantzak eta funtsak bilatzeaz batera, egoerari buelta ematen laguntzeko.

Pertsona talde horrek sustatuta, Bultz-Lan Consultingen laguntzarekin, **1994an Gaztenpresa sortu zen**, lehenengo unetik beretik enpresa-ideien lehiaketatzat hartuta. Esperientzia oso emankorra izan zen; izan ere, lehenengo urte horretan 10 enpresa berri sortu ziren, helburu horretarako bereziki garatutako mikro-finantziarioko irtenbideen sostenguarekin.

Ondorengo urteetan, programa **poliki-poliki hedatu zen Gipuzkoa, Araba eta Nafarroara**, LABORAL Kutxako lankideen interes eta bultzadari esker; izan ere, ekimena gustukoa izanik, euren lurraldeetan aplikatu nahi izan zuten.

Era horretan, une zail bati aurre egiteko ideia bezala hasi zen ekimen hura **Gaztenpresa Fundazio bihurtu zen ofizialki 2002ko irailaren 16an**: irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu bat, LABORAL Kutxaren gizarte-ekintzaren partaidea.

2024an estatu osora jauzi egin genuen, eta gaur egun, Gaztenpresa LABORAL Kutxaren bulego bat dagoen leku guztietan dago.





GAZTENPRESAREN 30 URTEKO IBILBIDEAN LORTUTAKO MUGARRIAK

13.371

lanpostu sortuta

7.246

enpresa sortuta

30.693

erantzundako
eskaerak

216

milioi eurotan
finantzazioa

3.542

emandako
maileguak

1.529

finkapen programan
artatutako enpresak

320

mentoring
erlazio

1.472

emandako
taillerrak



"Gaztenpresak nire
negozio-plana gainbegiratu
zuen eta behar nuen
finantziakzioa lortzen
lagundu zidan"

Anuska Arbildi
MÁSBARRO

**TAILERRA, ESKOLA
ETA ZERAMIKA-DENDA**

ARABA



gaztenpresa
fundazioa



Gaztenpresa

ZER EGITEN DUGU?

Gure ingurunean **ekin nahi duten pertsoneri laguntzen diegu, arrakasta izateko ahalik eta aukera handienarekin egin dezaten**, aberastasuna sortuz enplegua sortzearen bidez.

Beraz, Gaztenpresa **ekintzaileentzako sostengu bat da, haien proiektua zein etapatan dagoen alde batera utzita**, honako hau eskaintzen baitiegu: prestakuntza irisgarria; negozio-eredu egokiena aukeratzeko orientabide pertsonalizatua; finantziario-aukerak; eta pertsona bere ekintzailetzan gidatuko duten mentore espezializatuen laguntza.

Zeregin hori gauzatzeko, **gure taldearen** laguntza dugu, eta baita **boluntarioen parte-hartzea** eta gurekin aliantza estrategikoak eratzen dituzten **erakunde batzuen lankidetzak** ere.

Haien laguntzarekin, **ekintzaileak prozesu bat hasten du, eta hor ikasten du benetan zer den negozio bat hastea eta mantentzea**. Hori lagungarria da bere hazkunde pertsonal eta profesionalerako, bere bizi-baldintzak hobetzeaz batera.

2024

FINKAPEN
TALDEA | 4
pertsona

14,5
milioi euro
mailegutan

126
boluntariotzako
mentoring
taldea

LAN-TALDEA | 14
pertsona

50
webinar

Gure ekarpena GJH-ei

Garapen Jasangarriko Helburu hauek bultzatzen ditugu:





3

Gure inpaktua

Ekintzaileei ematen diegun babesak funtsezko garrantzia du haien proiektuak abian jartzeko eta sendotzeko. Horrela, gure inguruko komunitateen biziberritzeari laguntzen diogu, eta garapen jasagarria sustatzen dugu kalitatezko enplegua sortuz.

Gaztenpresan, inpaktua ikuspegi hirukoitz batekin neurtzen dugu:

- **Ekintzaileengan** dugun inpaktua
- Haien **negozioetan** duen inpaktua
- **Gizartean** duen inpaktua

EKINTZAILEEN PROFILA



LAN EGOERA



IKASKETA MAILA





“Bizitzan beti dago norbait eskua emateko prest, eta Gaztenpresak nire proiektuan sinetsi zuen lehen unetik bertatik.”

Rebecca Berhe
ETIOPIA JATETXEA
GIPUZKOA

Pertsonengan duen inpaktua

Gizarteak gauza asko irakasten dizkigu, baina ez digu ekiten irakasten. Eta oso bestelakoa da ekitea, beste norbaiten kontura lan egitea baino.

“Ekitea nahi baduzu, zure negozioaren lokomotora izan beharko duzu.”

Horregatik, lehen aldiz ekitea —laguntzen ditugun pertsona askoren kasuan bezala— erronka bikoitza da: jarrera-aldaketa bat eskatzen du. Gure helburua da pertsona horiek kontziente egitea zer esan nahi duen ekiteak eta zenbaterainoko garrantzia duen negozio bat kudeatzen ikasteak, epe luzera bizirauteko aukerak izan ditzan.

Aldatu nahi ditugun jarrerak edo joerak honako hauek dira:

EPE LABURRERAKO ALDAKETAK

Inplikazioez kontzientziaztea

Bere garapen profesionala erraztea

Diru-sarrera nahikoak

Lan-merkatuan sartzea

EPE LUZERAKO ALDAKETAK

Autonomia finantzario handiagoa


Bere bizi-kalitatea hobetzea

Bere gaitasunetan konfiantza handiagoa izatea


ENPRESA

EKINTZAILEEN IRITZIA

Enpresa-jardueraren lehen urtean




Ekitea espero zenuen modukoa izan al da?



Kasu guztietan, errealitatea espero zena baino hobea da, nahiz eta 5etik 4ko balorazio-tartean egon.

Ekiteak zure bizitza hobetu al du?



Atera dugun ondorioa da item guztietan pertzepzioa hobetzen dela. Balorazio onenak jaso dituzten alderdiak hauek izan dira: norberak ezarritako arauen arabera lan egitea eta bizitza pertsonala eta lan-bizitza uztartzea.

Gure babesaren
alderdi
BALORATUENA

1 NIRE NEGOZIO-PLANA
LANTZEA

2 BANKU-FINANTZIAZIOA
LORTZEA

3 DIRU-LAGUNTZAK
ESKATU




"Gaztenpresari esker, nire proiektua martxan jartzeko behar nuen finantzaketa lortu dut, eta gaur egun, benetan pasioa dudan horretatik bizi naiteke."

Gabriel Curto
GRIND - SKATE SCHOOL

KANTABRIA

BIZI-KALITATEAN IZANDAKO INPAKTUA

Jardunaren lehenengo 5 urteetan





"Bi urtez gimnasio monitorea gisa lan egiten egon ondoren, negozioaren eskualdaketa egiteko aukera sortu zen, Luis, jabea, erretiratzera zihoalako, eta Gaztenpresak prozesu osoan lagundu zidan."

Daniela Jaramillo, Luis Ferreño, Lorena E. Bogado eta Gorka Ugarte
ONDARRU FITNESS

BIZKAIA

Negozioetan izandako Inpaktua

Lortu nahi duguna da Gaztenpresaren babespean sortzen diren negozioak ahalik eta arrakasta izateko aukerarik handienekin sortu daitezela. Batzuetan, horrek eskatzen du "EZETZ" garaiz esatea, ekiteko interesa duen pertsonari kalte egingo lioketen porrotak saihesteko.

Inkestatik ateratako emaitzek, negozioei dagokienez, honako hauek erakusten dituzte:

Biziraupen tasak

Eustat-en % 45aren aurrean

%77

BOSGARREN
URTEAN

* negozioarekin
jarraitzen ez duten
3 ekintzaileetatik batek
beste enplegu bat
aurkitu du

gizarte- eta
ingurumen-inpaktua
dutenak

%25

GIZARTE- ETA INGURUMEN-INPAKTUA DUTEN 88 ENPRESA SORTU DITUGU



12

HEZKUNTZA
PRESTAKUNTZA



30

OSASUNA



24

KULTURA
KIROLA



7

IKUS-ENTZUNEZKO
EKOIZPENA




15

KOOPERATIBAK

Jakin nahi dugu nola eboluzionatzen ari den zure negozioa.

FAKTURAZIOA




%80 Negozioen % 80ak bere fakturazioa handitu du azken urtean

%20 Negozioen % 20ak maila berean mantendu du

%0 Negozioen % 0k murriztu du

Zer soldata ahalbidetzen dizu zure negozioak?




%49 soldata apala jasotzea ahalbidetzen dit

%40 estutasun handirik gabe bizitzea ahalbidetzen dit

%7 ez zait heltzen soldata batekin

ENPLEGUA

%56 Negozioen % 56k enplegu gehiago sortu du



LANGILEEN ADINA

%44 30 eta 50 urte bitartean dago

%16 50 urtetik beherakoa da


%40 30 urtetik gorakoa da

%89 BIZITZEA AHALBIDETZEN DIE



"Gaztenpresari esker, nire ideia benetako enpresa bihurtu ahal izan nuen. Finantzaketa lortzen lagundu zidaten. Hurbiltasun eta profesionaltasun handiko babesa sentitu nuen."

Gloria Marta Larraz
BAIU, TXAKUR-JOSTUNDEGIA
BIZKAIA



Gizartean lortzen den Inpaktua

Gaztenpresan, **sakon baloratzen dugu ekintzaleek gure ingurunea aberasteari egiten dioten ekarpena**. Horregatik, lanean ari gara gizarteak haien lana aitortu dezan, zeren horrek, zalantzarik gabe, tokiko kontsumoarekin konprometituago dauden herritarrak ekarriko baititu berekin.

Gure datuen azterketatik eratorritako emaitzak honako hauek dira:

Pertsona kalteberagoei laguntzen diegu:

%29 langabeziatik datoz

%18 derrigorrezko ikasketak dituzte

%14 migratzaileak dira

%44 emakumeak dira

%32 35 urte baino gutxiago dituzte

%24 45 urte baino gehiago dituzte

Aberastasuna sortzen da tokiko mailan:

Negozioen %55

Probintzia-hiriburuez kanpo daude kokatuta

104.847 €-ko batez besteko inbertsioa irekitako negozio bakoitzeko

41.500€-ko batez besteko ekarpena sortutako proiektu bakoitzeko, zergen bidez

Izaskun González
OGGOK STUDIO

APAINKETA, ARTISAUTZA,
ARTE ETA ANTIGOALEKO GAUZAK

GIPUZKOA

4 Enpresen sorrera

Zurekin gaude,
hasieratik amaierara arte,
zure proiektua
abiatzeko lanean.



Laguntzen dizugu baloratzen **ea zure ideia negozio-aukera bat den**, eta horretarako ekintzailertzan aditua den pertsona bat izango duzu zure ondoan hasieratik beretik.



Negozio-plana prestatzeko aholkua ematen dizugu, zeren hori funtsezko tresna baita **negozio bat sortzeak berekin dakartzan inplikazioak ulertzeko**.



Zure beharretarako eta zure negozioarako egokiena den finantza-plana egiten dugu, banku-finantziazioa eta diru-laguntzak barne sartuta.

348

enpresak sortuta

ARABA	35
BIZKAIA	166
GIPUZKOA	75
NAFARROA	36
B. HERRIALDEAK	36
GUZTIRA	348

696

sortutako lanpostuak

ARABA	73
BIZKAIA	309
GIPUZKOA	152
NAFARROA	67
B. HERRIALDEAK	95
GUZTIRA	696

JARDUERA SEKTOREA



%2
INDUSTRIA



%80
ZERBITZUAK



%17
MERKATARITZA



%1
NEKAZARITZA
ABELTZAINZA

FORMA JURIDIKOA

BANAKAKOA

%72

SOZietateak

%28

%15 Koop

%85 SL



31

“Jasotako finantzaketak kongresuetan parte hartzen eta proiektua zabaltzen lagundu zigun.”

Ainhoa Molceperes
**VOR3D VETERINARY
ORTHOTICS 3D**

BIZKAIA



gaztenpresa
fundazioa



Finantziazioa

Zure proiektuaren behar zehatzak aztertuz, plan finantzarioa egiten laguntzen dizugu, eta finantzaketa-aukerarik egokienak proposatzen dizkizugu.

270 EMANDAKO
KREDITU

FINANTZIAZIOA 2024 AN
14.553.968 €

FINANTZIAZIOA 1994-2023
216 milioi €

104.070€

BATEZ BESTEKO INBERTSIOA

Batez besteko inbertsioa enpresa berriak abiatzeko.

53.904€

BATEZ BESTEKO MAILEGUA

Enpresa-proiektua gauatzeko beharrezkoa den batez besteko mailegua.




Gaztenpresa Digitala

Gaztenpresa Digitala doako zerbitzu bat da, ekintzaileei online laguntzera zuzendua.

Plataforma horren bitartez, ekintzaileek tutoretza pertsonalizatuak eta prestakuntza dituzte eskura, euren negozio-plana definitzeko eta zalantza guztiak argitzeko.

Esteka honen bidez iristen da bertara:


<https://gaztenpresa.org/eu/gaztenpresa-digitala/>





5 Enpresen finkapena

Negozio bat irekitzen duzunean, lehenengo urratsak izaten dira gogorrenak. Zure negozioaren agintea hartu behar duzu. Horregatik, funtsezko une horretan ere gaude zure ondoan.





113

AHOLKULARITZA
PROIEKTU



14

MENTORING
HARREMAN



50 - 1.077

TAILERRAK PARTE-HARTZAILEAK



“Gaztenpresak erraztu
zigun gure elkarte
eratzeko behar genituen
tramite legal eta
administratiboak egitea”

Esther Rey eta Ana Fabo
SENSATA LOCURA
ARTE ESZENIKOAK
GIPUZKOA



“Nire proiektuak behar zuen finantziazioaren zehaztasunak ezagutzea eta finantziazio hori lortzen laguntzea funtsezkoa izan da niretzat”

Oskar Estanga
CASA SORTETXEA
LANDETXEA
NAVARRA

Aholkularitza

Aholkularitza indibidualizatua eskaintzen diegu laguntza espezifikoa behar duten enpresei. Era horretan, 2024an egindako aholkularitzak baliagarriak izan dira negozioetarako; izan ere, **inbertsio erantsiak** egin dituzte, **negozio-ildo berriak gehitu**, neurri zuzentzaileak inplementatu, **diru-laguntza eta kredituen lorpena** kudeatu, eta **eskualdaketak** gauzatu.



MARÍA LIZASO
eta CRISTINA BALERDI
LIBA
DECORACIÓN
GIPUZKOA



Mentoringa

Mentoring-programa laguntza pertsonalizatuan oinarritzen da, esperientzia profesionala duten pertsonak modu boluntarioan eskaintzen dutena. Pertsona ekintzaileei laguntzen diete haien negozioak abian jartzen eta sendotzen.



Gaztenpresa Gela

Urtean zehar, webinar-programazio zabala eskaintzen dugu, eta horien bidez, pertsona ekintzaileek gaitasunak eskuratzen dituzte funtsezko arloetan, hala nola marketin digitalean eta beren negozioaren kudeaketa finantzarioan.

Tailer horiek online zuzenean jarraitzeko aukera izateaz gain, parte-hartzaileek –baimena emanaz gero– Gaztenpresa Gelan izena eman dezakete. Plataforma online horren bidez, webinarren bideoak berrikusi eta aurkezpen-materialak eskuratu ahal izango dituzte edozein unetan.

Sarbidea esteka honen bidez egiten da:

<https://miproyecto.gaztenpresa.org/aula/login/index.php>

Sandra Marqués
ANDA CONMIGO
HAUR-TERAPIEN ZENTROA
GIPUZKOA



6 Kultura ekintzailearen sustapena

Uste dugu gure gazteria sentsibilizatzen jarraitu behar dela, ekintzailetza-kultura bat barnera dezaten beraien prestakuntza-zentroetan eta unibertsitateetan bertan. Horrela, gure herrialdeko enpresa-sarea etorkizunean hazten jarrai dezan.

Helburu horrekin, honako ekintzak burutu ditugu:

- Unibertsitate-ingurunean sariak antolatzea.
- Hezkuntza-eremuko ekitaldien babesletza eta sustapena.



Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, industriaren eta gizartearen benetako beharretan oinarritutako ekintzailetza teknologikoa sustatzearen aldeko apustuan, Enpresa Sortuz lehiaketa antolatzen du.

Sari banaketa 2024ko ekainaren 14an egin zen.



MBAE3 Sariak

Aurten, negozio-ekimen bideragarri eta orijinalak saritu nahi izan dira, eta horregatik zuzkidura ekonomikoa banatu egin da eta 1.500 €-koa izan da proiektu bakoitzeko, sarituak honako hauek izanik:

Margarita Arenas, biotech sektoreko startup baten CEO, bere lehenengo prototipoa eraikitze fasean baitago, HAZI eta LAUGAR BREWERY-REN laguntzarekin.

ALETHIA, basogintza sektoreko digitalizazioan aritzen den startup bat, jadanik Zitek-en Think Big saria jaso duena eta gaur egun programaren lehenengo urratsak egiten ari dena.

Sarien banaketa 2024ko otsailaren 21ean izan zen.



Coca-Colaren Gazte-bira

Coca-Colaren proiektu bat da, gazteen enplegarritasuna eta ekintzailerak bultzatzera zuzendua. Gaztanpresak Biran lan egin du YBSren eskutik.

Gaztenpresak 2 talderi lagundu die 2024an, programa honen barruan.

Sarien banaketa 2024ko ekainaren 25ean izan zen.



Ekingune:

Urriaren 17an, Ekingune egin zen Eibarko Errebal Plazian, hau da, On Ekin Sarien hamabigarren edizioa; ekitaldi horrek eskualdeko ekintzaileen talentua eta berrikuntza aitortzen ditu urtero. Jardunaldiak 60 pertsona baino gehiago bildu zituen, horien artean Jon Iraola alkatea eta Vanesa Hortas zinegotzia, eta baita LABORAL Kutxako ordezkari batzuk ere, bera baita ekitaldiaren babesle nagusia.

Sari nagusia, 2.000 eurokoa, **KUDIrentzat** izan zen: Goretti Abascalen aplikazio bat, finantza pertsonalen kudeaketara eta heziketa finantzariara zuzendua. Herri Saria, 1.000 euroko zuzkidurarekin, **La Alegría de la Huertari** eman zaitzaion: Nacho Pradoreen proiektu bat, helburutzat duena ongizatea umorezko ikuskizunen bidez sustatzea, herrian bakarriketa-jaialdi batez hasita.



AED-REN IMPULSA PROGRAMA

Impulsa Programaren baitan, belaunaldi arteko **networking-jardunaldi** berri batean parte hartu genuen, eta bertan AEDk erakutsi zuen ezagutzaren transferentziaren alde egin duen apustua.



Podcast

Gaztenpresaren podcastak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin sortu zen.

Espazio berri horrekin, **ekitea erabakitzen dutenek edo autoenplegua hautatzen dutenek sarritan pairatzen duten bakardade sentsazioa gutxitu nahi dugu.** Hemen entzun **ditzakete egoera berean dauden beste pertsona batzuen testigantzak**, edo garai batean horrela egon ziren pertsonenak, euren esperientziaz, kezkez, beldurrez, ilusioez eta bestelakoez hitz egiten.

Kanal honetan, halaber, ekintzaileei kezka sortzen dizkieten gaiak –hala nola **negozio-plana, finantza-osasuna, digitaliazioa, etab.-** ondo ezagutzen dituzten hainbat arlotako profesionalak ere sartzen dira.

Spotify: <https://open.spotify.com/show/242Cg4O6TA3iVJfHN9Vb8K>



8 Gobernantza

Patronatua da Gaztenpresaren agente-organo gorena. Bera arduratzen da Fundazioaren izen ona eta zeregin ona mantentzeaz, erabateko gardentasunarekin eta gurekin elkarreragina duten pertsona eta erakunde guztietan konfiantza sortuz: ekintzaileak, enpresak, kolaboratzen duten pertsona eta erakundeak, gobernuak, gure taldea osatzen duten profesionalak, etab.

Patronatua 7 pertsonaz osatuta dago. Pertsona horiek bost urterako aukeratzen dira, eta epe berdinez aukeratu daitezke berriro, inolako mugarik gabe.

Gaur egun, Patronatua osatzen duten zazpi pertsonak honako hauek dira:


- **Lehendakaria:** IBON URGOITI
- **Lehendakariordea:** OSCAR MUGUERZA
- **Idazkaria:** SUSANA ANDRÉS
- **Batzordekideak:**
 IÑIGO MARTINEZ
 JAVIER CORTAJARENA
 JOSEBA SAGASTIGORDIA
 IÑAKI PEÑA



2024ko URTEKO KONTUAK

AKTIBOA	2024	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2024
AKTIBO EZ-KORRONTEA	121.121	ONDARE GARBIA	1.253.152
AKTIBO KORRONTEA	2.436.440	PASIBO EZ-KORRONTEA	948.413
		PASIBO KORRONTEA	355.996
AKTIBO GUZTIRA	2.557.561	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	2.557.561

* Eurotan adierazita.



A) EKITALDIKO SOBERAKINA	2024
OPERAZIO JARRAITUAK	
1. Jarduera propioaren sarrerak	1.252.472
a) Promozio, babesle eta laguntzaileen bidez eskuratutako sarrerak	972.472
b) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	280.000
2. Salmentaren eta merkataritza-jardueraren beste sarrera batzuk	41.935
3. Gastuak diru-laguntzengatik eta beste batzuegatik	(562.898)
a) Diruzko laguntzak	(9.724)
b) Diruz besteko laguntzak	(553.174)
4. Jardueraren beste sarrera batzuk	(8.614)
5. Jardueraren beste gastu batzuk	(402.317)
6. Ibilgetuaren amortizazioa	(55.899)
7. Hornigaien gehiegizko kantitatea	-
JARDUERAREN SOBERAKINA	264.679
8. Finantza-sarrerak	-
9. Finantza-gastuak	-
10. Kanbio-diferentziak	-
11. Finantza-tresnen balio-galera eta eskualdatzeengatiko emaitza	(10.000)
FINANTZA-OPERAZIOEN SOBERAKINA	
SOBERAKINA, ZERGEN AURRETIK	254.679
12. Mozkinen gaineko zerga	-
ONDARE GARBIAREN ALDAKETA, EKITALDIAREN SOBERAKINEAN AITORTUA	254.679
ERRAKUNTZEK ERAGINDAKO DOIKUNTZAK	-
OSOKO EMAITZA, ONDARE GARBIAK EKITALDIAN IZANDAKO ALDAKETA	254.679

2024ko Memoria honetan parte hartu duten **ekintzaileak**

- **Andoni Fuentes**, CENTRO ECUESTRE ALDA, (Okondo, Araba)
- **Anuska Arbildi**, MÁSBARRO, (Vitoria-Gasteiz, Araba)
- **Maialen Landa y Aitor Cespon**, BALEA | AKROYOGA TA MUGIMENDUA, (Vitoria-Gasteiz, Araba)
- **Rebecca Berhe**, ETHIOPIA-Z JATETXEA, (Donostia, Gipuzkoa)
- **Gabriel Curto**, GRIND SKATE SCHOOL, (Castro-Urdiales, Kantabria)
- **Lorena E. Bogado**, ONDARRU FITNESS, (Ondarroa, Bizkaia)
- **Gloria Marta Larraz**, BAIU SASTRERÍA CANINA, (Bilbao, Bizkaia)
- **Izaskun González**, OGGOK STUDIO (Hondarribia, Gipuzkoa)
- **Ainhoa Molceperes**, MASKOTENTZAKO ORTOPEDIA, (Bilbao, Bizkaia)
- **Ana Fabo y Esther Rey**, SENSATA LOCURA (Donostia, Gipuzkoa)
- **Oskar Estanga**, CASA SORTETXEA (Gaintza, Nafarroa)
- **María Lizaso y Cristina Balerdi**, LIBA DECORACIÓN (Zarautz, Gipuzkoa)
- **Sandra Marqués**, CENTRO DE TERAPIAS INFANTILES ANDA CONMIGO (Donostia, Gipuzkoa)



 **900 101 143**
info@gaztenpresa.org
www.gaztenpresa.org

